

JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko, kanpoko enpresen esku utzi nahi ez ditugun eta gure enpresa barruan egingo ditugun jardueren berri ematera goaz atal honetan.

Gure ardura aplikazioan dauden **edukiak antolatzea** da, ikasgaien arabera eta hezkuntza-mailen arabera, nahiz eta gero erabiltzaile bakoitzak nahi duen moduan aldatu ahal izango dituen.

Horrez gain, sari eta txanpon-sistemak antolatzeaz, hau da, pizgarrietaz ere gu arduratuko gara. Gure jardura nagusietako bat da **txanpon-sistema** garatu eta mantentzea, ikasleak APPa erabil dezaten eta edukiak argitaratu ditzaten motibatzeke. Horretarako, erabiltzaileen parte-hartzea aztertuko dugu eta sistemaren funtzioak eguneratuko ditugu, **motibazio maila** altua mantentzeko eta ikasleei esperientzia erakargarria eskaintzeko.

Sare sozialen bidez gure aplikazioa ezagutaraztea funtsezkoa da, baita ikastetxeetan aurkezpenak egitea eta gure plataforma ikasgeletan sustatzea ere. Beste jardura nagusi bat gure aplikazioa **ezaguraztea** da. Horretarako, sare sozialetan kontu desberdinak sortuko ditugu, horren bidez publizitate sortzailea sortzeko eta horri esker aplikazioaren ospea handitzeko eta hobetzeko.

Bestalde, erabiltzaileen datuak modu seguruan gordetzea ere gure ardura izango da, hau da, erabiltzaileen **segurtasuna eta pribatutasuna** mantentzea. Zerbitzua egunero ondo funtzionatzen duela segurtatzen dala ere.

Aipatutako jardura guzti hauek modu arduratsuan eta eraginkorrean garatzen ditugu, aplikazioaren kalitateari eta erabiltzaileen esperientziri beti lehentasuna ematen saiatuko garelarik.



mutiko baten irudia, denbora sare sozialetan pasatzen

Argazkia-hemendik:https://www.berria.eus/ekonomia/sare-sozialak-ogibide-1339335_102.html